


OSTEGUN BELTZA TUNISIAN



Urtarrileko 26a, ostegun beltza izan da tunisiarrentzat. "Tunisia independentearen lehen greba orokorra" izendatu zuten sindikatuek.

Egun horren ondorioz "ehundaka asko" ofizialki esan denez izan dira balaz hilak Tunisiako kaletan. Polizia eta armadak gogor eraso diote manifestapenari. Errebolta hura iraultza bilakatzearen beldur zen gobernua.

Europar jende asko harriturik eta txunditurik gelditu da. Izan ere, Bourguibaren erregimenak liberal fama zuen. Europarra omen zen, esan ohi zen satisfazioz Europan. Europaren irudi ona ematen omen zuen Afrikan, hemengo beste zenbaitekin alderatuz batipat. Horregatik ez zen uste halako kale-hilketarik Tunisia bakezalean gerta zitekeenik. Hortik harridura.

Zer da hor gertatu dena? Eta zergatik, batez ere?, hona jende ohartuaren galderak.

Bourguiba zahartuz doa. "Burrukalari garaiena" k geroz eta gutiago agintzen du. Destour alderdi bakarrean, beraz, joera bat baino gehiago hasi da jadanik nabaritzen. Habid Achour, sindikatuen buru eta gobernuko kontseilukoa izan berria, jar genezake korronte baten aintzindari. Gobernutik dimittitu egin zuen. Harez gero, sindikatuaren eta gobernuaren artean geroz eta tarte handiagoa dago: sindikatua ez da gehiago transmisio-hede bat, langileen antolakuntza baizik. Egiazko ezkertiarak horixe bildu ohi dira. Bi polo bezala gerta zitezkeen, horrela, Tunisian: bata gobernuarena eta bestea sindikatuarena. Arriskugarriegia zen hau gobernuarentzat.

Bestalde, lehen esan bezala, Bourguibaren agintearen ahultzearekin gobernuaren agintea bera ere ahulduz zihoan. Dozena erdi bat ministrarik, dimittituz, gobernu utzi berria zuten. Giro honetan planteiatu da greba orokor hori. Zer da, beraz, hemen jokuan zegoena? Ez gobernu soilki, baizik eta Bourguiba bera, diote batzuk.

Krisi ekonomikoa da gertatua, batzumentzat. Politikoa, beste batzumentzat. Haserrearentzako eta grebara deitzeko arrazoi ekonomikorik ez da falta. Mundu krisiak biziki nabaritu da fosfatoaren eta ehunaren esportapenetan. Sikateak, bestalde, emaitzik hoberenak lehortu zituen 1977.ean. Emeki emeki besterik ez dira igaten lansariak. Gafsako meatzetako langileen eskabideen aurrean Gobernu gogortu egiten da. Abenduaren azkenean krisi soziala begien bistakoa da.



Gudari historikoak eta aberriaren gurasoak omen dira.

Politikazkoa bilakatuko da laster krisia. Gobernuko dimisioak alde batetik eta UGTT sindikatu bakarra kontrolatu nahia bestetik, aginte hauzia zegoen tartean. Ezin zezakeen gobernuak geroz eta urrutiago zihoakion sindikatua bere bidetik utz. Habid Achour, sindikatuko buruak (eta agintekide izan berriak), arriskua ikusirik, grebara deitzen du. Urtarrilaren 26an kalera atera zen langilea. Eta han gelditu zen zerraldo, hilik.

Bourguibak irabazi du oraingoan. Noiz arte? Gobernu gelditu da agintearen jabe. Zein prezio eta kondiziotan?

Tunisiako kasu bertsua beste askori ere planteiatu zaio edo planteiatuko Afrikan. Afrikako nazioen independentzia, lortu berria da. Herri horietako askok, erdietsi berriko askatasun horregatik, etorkizunari baino errazago begiratzen diote iraganaldia. Horrela lortu ohi dute herriaren batasuna, gobernatzeko behar duten "consensus" delako hori. Independentzia lortzeko burruka egin duten gizonak agintean daude oraindik: nazioaren "guraso" bailiren dira, adibidez, Senghor, Boumedién, Bourguiba. Nazionalismoa azpimarkatuz, agintea eskuratzea erdietsi dute, kolonizatzailea kanpora bidaltzea. Baina ez, haatik, barneko problemak oro konpontzea. Hor dago koxka orain. Independentzia honen bigarren mementuko zantzu bat izan daiteke Tunisian gertatua ere: kanpoko agintearekin hauririk ez dagoen sasoiaren, barruko agintearekin sortzen dira zezioak. Agintearen kontzentrazio bakarra egon baita herri hauetan. "Gudari historiko" hauk desagertzera koan, haiekin batera desagertu beharko du agintearen monopolioak ere.

joanes lekerika